



BARREN  
TOKIKOM

# Ekinez egina



# LAN-DEIALDIA

ELGOIBARKO IZARRAK ALDI BATERAKO ATXUTXIAMAIIKARAKO AISIA HEZITZAILEKO ARDURADUNA BEHAR DU

## LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Aisia hezitzaile saileko proiektuak koordinatzea (familia programa, udalekuak, nerabeak, euskara errefortzuak...).
- Lan talde profesionala koordinatzea.
- Elkartegintza eta herrigintza sustatzea.

## ESKAITZEN DA:

- Jardun osoko ordezkapen kontratua.
- Formatzeko aukera.

## ESKATZEN DA:

- Zuzendari titulua izatea.
- Aisia hezitzailean lan eskarmentua izatea.
- Euskara maila altua izatea, ahos eta idatziz.

## BALORATUKO DA:

- Lan taldeak koordinatzen esperientzia izatea.
- Psikopedagogia, Pedagogia edo Gizarte Zientzietako antzeko titulazioa izatea.
- Euskalgintzan jardun izana.
- Parte hartzea, hezikidetzaren edota inklusioaren inguruko ezagutza izatea.
- Informatika eta teknologia berrien gaineko ezagutza izatea.
- Elgoibarkoa izatea.
- Malgutasuna izatea, egutegi eta ordutegiari dagokionez.
- Gida baimena eta kotxea izatea.



CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:  
IRAILAK 30, ASTELEHENA

kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus  
Ubitarte 4, behe. 20870 ELGOIBAR  
943 741 626 / 643 499 169 (Amaia Lasagabaster)

# LAN-DEIALDIA

ELGOIBARKO IZARRAK ATXUTXIAMAIIKARAKO AISIA HEZITZAILEKO KOORDINATZAILEA BEHAR DU

## LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Familia programa aurrera eramatea.
- Aisia hezitzaileko ekintzak aurrera eramatea (udalekuak eta abar).

## ESKAITZEN DA:

- Astean 30 orduko lan kontratua.
- Formatzeko aukera.

## ESKATZEN DA:

- Begirale titulua izatea.
- Aisia hezitzailean lan eskarmentua izatea.
- Euskara maila altua izatea, ahos eta idatziz.

## BALORATUKO DA:

- Lan taldeak koordinatzen esperientzia izatea.
- Psikopedagogia, Pedagogia edo Gizarte Zientzietako antzeko titulazioa izatea.
- Euskalgintzan jardun izana.
- Antzerki tekniken inguruko ezagutza izatea.
- Parte hartzea, hezikidetzaren edota inklusioaren inguruko ezagutza izatea.
- Informatika eta teknologia berrien gaineko ezagutza izatea.
- Elgoibarkoa izatea.
- Malgutasuna izatea, egutegi eta ordutegiari dagokionez.
- Gida baimena eta kotxea izatea.



CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:  
IRAILAK 30, ASTELEHENA

kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus  
Ubitarte 4, behe. 20870 ELGOIBAR  
943 741 626 / 643 499 169 (Amaia Lasagabaster)



RPS233/13

Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar



RPS 65/07

San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734



Medikuntzan doktorea  
Psikiatrian espezialista  
Psikoterapia psikoanalitiko  
Psikosomatika

Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)  
Bailen kalea, 9, 1. ez. (Bilbo)  
furizar1@yahoo.com  
615 715 404



RPS 271/12

Jausoro plaza, 6 behe  
Elgoibar

943 531 953  
669 565 745



Ainara Iriondo Ansola

GIZA EUKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22  
Eibar  
677 551 850



Fisioterapia aurreratua eta  
Kirol Berregokitzea


Trenbide kalea, 18  
943 740 191 / 667 953 698  
www.fisio-mas.com  
RPS 173/09



RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Erparantz, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 530 053



RPS 183/12

Elgoibar  
Tel.: 943 740 359

Deba  
Tel.: 943 192 192

ANDER SORALUZE

Informatikaria



## Hainbat bitxikeria

Sarean aurkitutako hainbat bitxikeri-ekin nator gaurkoan.

- Bug eta Debug: Programa informatiko batek akatsen bat daukanean *Bug* bat daukala esaten dugu, eta akatsok aurkitu eta konpontzeko prozesuari *Debug* deitzen zaio. Ingelesetik literalki itzuliz, Bug-ek "mamorro" esan nahi du. Itxura denez, 1967an, Grace Hopper izeneko Estatu Batuetako almirante batek, bere Mark II ordenagailuak arazo bat zeukala esan zuenean, teknikariak sitsa aurkitu omen zuten errele baten funtzionamendua oztopatzen. *Debugatu* zu-

tenean ordenagailua ongi funtzionatzen hasi zen.

- Birusak: 1983. urtean Fred Cohenek ordenagailuak kutsa zitzakeen aplikazio bat garatu zuen, diskeak erabiliz beste makina batzuetara hedatu zitekeena. Bere asmoa ez zen inongo kalterik egitea: arrisku hauek errealak zirela eta noraino hel zitezkeen erakutsi nahi zuen. Hurrengo urtean *Birus informatikoak: teoria eta experimentuak* liburua argitaratu zuen, birus motak sailkatuz eta haien arriskua Segurtasun Na-

zional mailakoa izan zitekeela esanez.

- Lehen bideojokoa: Askotan Pong izan zela entzun badugu ere, itxuraz 1962an Steve Russel delako batek Spacewar! izeneko joku bat garatu zuen MITko beste ikasle batzuekin batera. Joku hau PDP-1 makina batean exekutatzeko garatu bazen ere, 2006an horrelako makina bat birgaitu zenetik, Mountain Viewko ordenagailuen museo historikoan jokatuta daiteke. Dena den, badago lehen bideojokoa Pongen aurrekari bat izan zela esaten duenik ere.

- Hizkuntza kopuruan hirugarren "herrialdea": Gaur egun 698 hizkuntza informatiko daude kontabilizatuta. Hortaz, informatika herrialde kontsideratuko bagenu, munduko hirugarrena izango litzateke hizkuntza ezberdin kopuruari dagokionean: Papua Guinea Berria 836 hizkuntza ezberdin daude, eta bigarrena Indonesia da, 700dik gora hizkuntzarekin.

*"Informatika herrialde kontsideratuko bagenu, munduko hirugarrena izango litzateke hizkuntza ezberdinen kopuruari dagokionean"*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euzko Legeburuaren Argitalaritza

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Geru Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR  
UDALAK  
AJUNTAMENDO

LAGUNTZAILEAK:

MENDAK  
1981

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► GARDENTASUNA

Udalak Aita Agirre eraikina birgaitzea erabaki zuen, eta horretarako 4.200.000 euro aurreikusi zituen, hiru urtetan banatuta: 2017an, 1.000.000 euro; 2018an, 2.600.000, eta 2019an, 600.000. Birgaitze-lanak 3.600.000 euroko (BEZik gabe) kostua izan zuten enkante publikoan, eta azken esleipenean 2.400.000 € bideratu ziren (BEZik gabe). Gainera, eraikinarren inguruko hirigintza-lana egin behar zen: esleipena 444,108 euroan ezarri zuten, eta higiezinaren kostua, 138.000 euroan.

2017ko ekainean hasi zituzten birgaitze lanak, 2.400.000 euroko esleipenarekin eta 14 hilabeteko epearekin. Webgune bat jarri zuten abian, era berean, lanaren jarraipena egiteko.

2019. urte hasieran Udalak enpresa eraikitzailearen aurkako isuna iragarri zuen, baina isun hori benetakoa izan da ala Udal Gobernuaren esku-garbitze hutsa lanen atzerapenari erantzuteko? Ez dakigu zein den egoera zehatza.

Udal-hauteskundeak baino lehen, Udalak prentsaurreko bat eman zuen Aita Agirre eraikina apirilerako amaituta eta maitzerako martxan egongo zela esateko. Baina denbora pasa egin da, eta 27 hilabete geroago zabaldu dute.

Lanak egin diren denboran zifrak aldatu egin dira etengabe, eta, azkenean, Udalak esan digu aurrekontua 3 milioikoa izan dela baina, EHBilduk adierazi du, 5 milioikoa izan dela. Jakingo al dugu noizbait kopuru erreala?. Erabateko gardentasuna eskatzen diogu Udalari. Ezinbestekoa da hiritarrek lanen benetako kostua jakitea, hain zuzen ere aurreko legegintzaldiko aurrekontuen inbertsioaren zatirik handiena hartu duelako obra honek.

**Elgoibarko Ahal Dugu-Podemos**

### ► KOLDO LIZARRALDERI

1989an ezagutu genuen elkar. Zenbat euri egin duen geroztik! 1990. urtean aurkeztu zenuen *Convento de San Francisco* liburua, eta ordutik, sarri bildu ginen. Zure liburuek eta jaietako egitarauan argitaratzen zenituen artikuluek markatzen zuten gure bileren maiztasuna. Inurri bat bezalakoa zinen, artxihoan sartuta beti, jaso ezean galdu egiten den informazio horren bila, betirako ahazturan gelditzen den horren bila. Historiaren erreskatatzailea zinen. Espazio faltagatik artikulua mozten nizekizun nik, eta haserretu egiten zinen zu, baina azkeneko beti iristen ginen akordiora. Bake gizona zinen.

Kaleren bati izena jarri behar zitzaiocenean, zuri galdetzen nizun, eta beti zeneukan erreferentziaren bat, toponimoren bat... Jausoro, Basarte, Kurutzelaegi... Zenbat ordu eman zenituen gure historia errekuperatzen. Ordaina: zure liburua argitaratzea. Horrekin konformatzen zinen. Kolaboratzaile fina, nekazina... horrela sortu zen gure artean adiskidetasuna. Adiskidetasun heldu horietakoa. Isiltasunen gainera, bai zuk eta bai nik bagenekien elkarren laguntza izango genuela. Krisi pertsonalen sasoian, hor zeunden beti. Nik ez dakit zure mailara egon naitzen, zu oso handia zinelako.

Ezta, Mila? Gogoratzen duzu Koldoren arrebarenera Aranda de Duerora eman ninduzuenekoa? Horregatik bakarrik merezi izan du gure adiskidetasunak. Beti gogoratzen naiz bidai hartaz. Orduko hartan ez zenuen historia erreskatatu, ni baizik. Baina hura gure harremanaren hasiera baino ez zen izan, gure ibilien, bazkarien eta konfidentzien hasiera baino ez.

Ez zara agurtu, eta horrek min ematen du. Min handia ematen du. Baina beharbada ez zegoen horretarako beharrik... Nirekin geldituko zara betirako, nire biho-

tzean, Milarenean, zure seme-alabenean, ilobenean eta maite zaituzten gainerako guztien bihotzetan. Hain zinen etxekoa! Zure familia beste ezeren gainera. Eta lagunaren laguna. Beti.

Otordu bat gelditu zaigu egin gabe. Milari tokatzen zitzaien sukaldatzea, eta egingo dugu. Biok jango dugu, baina oraingoan zuri buruz hitz egingo dugu bakarrik. Beraz, ez dugu guk biok bakarrik bazkalduko. Kostako zaigu sinistea joan zarela, baina gure oroimenean izango zaitugu.

Koldo, eskerrik asko eman didazun guztiagatik eta Elgoibarri utzi diozun leguagatik.

**Blanca Salegi**

### ► BALKOIAK APINTZEKO LEHIAKETAREN HARIRA

Nire haserrea adierazi nahiko nuke lehiaketaren arduradunekiko. Beraiekin harremanetan jarri naiz email bidez, eta ez dut erantzunik jaso.

Gauza da lehiaketako oinarriak ez direla bete, eta arrazoia jakitzea gustatuko litzaidakeela.

Saridunen izena uztailean emango zela eta sari banaketa ere uztailean egingo zela ipintzen du oinarrietan. Nik dakidala, irailean jakinarazi dituzte irabazleen izenak eta sari banaketa ez dakit noiz eta non izan den, oinarrietan jartzen duen arren parte-hartzaileei noiz eta non izango den argi esango zaiela. Partaide bezala uztailean galdetu nuen, eta ez nuen erantzunik jaso. Joan zen astean beste email bat bidali nien, eta erantzunik ez. Arrazoiren batengatik atzeratu bazen, ez da ezer gertatzen: parte-hartzaileei azaldu, eta kitto. Baina oinarriak ez direnean betetzen azalpenak ematea da zentzuzkoena. Besterik gabe, zorionak irabazleei.

**Aitor Sánchez Idigoras**



# “Iazko June baino apur bat hobea izatea da aurtengo helburua”

## ► JUNE LOIDI ESKUBALOI JOKALARIA

June Loidi (Elgoibar, 2000) zeresana ematen ari da eskubaloian. Sanlon eza-gutu zuen eskubaloia, eta iaz Barakaldoko Zuazo taldeak fitxatu zuen. 19 urte besterik ez ditu, eta eskubaloiko gorengo mailara iritsi da. Eta ez hori bakarrik: Denboraldi amaieran Iberdrola Ligako defentsa onenaren saria jaso zuen. Ilusioz eta gogotsu ekin dio lehenengo mailako bigarren denboraldiari.

- AINHOA ANDONEGI -

### ♦ Noiz eta nola hasi zinen eskubaloian jokatzen?

Elgoibarko ume guztiak bezala. Eskolaz kanpoko ekintzen artean balleta, musika edo kirola izaten genuen aukeratzeko, eta nik eskubaloia aukeratu nuen. Kiroldegira joaten ginen seniorren partidak ikustera, eta gustatzen zitzaidan. Sanlon hasi nintzen, eta badirudi aukeraketa ona egin nuela.

### ♦ Iaz jaso zenuen Zuazoren deia. Zerk animatu zintuen Sanlo utzi eta ohorezko mailara jauzi egitera?

Sanloko entrenatzaileak animatu ninduen, batez ere. Esan zidan lehenengo mailan jokatzeke prestatuta ikusten ninduela eta Zuazorena oso aukera ona zela. Berak nigan konfidantza osoa zuela esan zidan, eta behar nuen guztian lagunduko zidala. Pausoa ematea erabaki nuen.

### ♦ Jubeniletatik lehenengo mailarako jauzia egin duzu. Nolako izan da egokitzapena?

Hasieran gogorra egin zitzaidan. Munduko txapelketa jokatzeke iritsi nintzen zuzenean Barakaldora, eta ordurako taldea osatuta zegoen. Hilabete zeramatzen elkarrekin entrenatzen ni iritsi nintzenerako, eta taldea egina zegoen. Banekien jubeniletatik lehenengo mailarako al-daketa handia izango zela, baina uste nuena baino handiagoa izan zen. Hasieran oso galduta ikusten nuen nire burua, ez nengoen integratuta, eta taldeak ondo funtzionatzeko ezinbestekoa da jokalaria guztiak bat eginda egotea. Taldekideen eta entrenatzailearen laguntzari esker lortu nuen taldean nire lekua aurkitzea. Konfidantza osoa eman zidaten, eta behin taldean sartuta, denboraldiaz gozatzeko aukera izan nuen.

### ♦ Zeintzuk dira zure indarguneak? Eta zertan daukazu hobetzeko beharra?

Nire indargunea defentsa dela esango nuke. Minutu gehiago jokatu





ditut defentsan, eta oso eroso sentitzen naiz. Erasoan, aldiz, badaukat zer hobetu. Jubeniletan hobeto moldatzen nintzen, altura eta indarra baditudalako, baina lehenengo mailan hori ez da nahikoa. Lehenengo mailan ni baino jokalaria indartsuagoak eta altuagoak ditut parez pare, eta hobetu beharra daukat. Egia esan, erasoan eta defentsan, bietan ditut hobetzekoak.

♦ **Sanloko jubenilen taldean ardurua handia zeneukan taldean. Zein da zure papera Zuazon?**

Defendatzeko rola daukat, batez ere. Erasoan ez daukat horrelako pisurik, baina defentsan paper garrantzitsua jokatzen dut. Baina ni ez naiz beste inor baino garrantzitsuagoa. Jokalari guztiak eta gutako bakoitza gara beharrezkoak. Nik argi daukat lan egin behar dudala entrenamendu guztietan nire postua finkatzeko.

♦ **Zein nota jarriko zenioke zeure buruari? Eta, taldeari?**

Iazko denboraldia zaila izan zen taldekide guztientzat. Oso talde gaztea geneukan, eta esperientzia falta zitzaigun. Partidetan esperientzia falta hori igarri egiten zen, eta urduritasunagatik galdu genituen zenbait partida. Beraz, zazpiko bat jarriko nioke taldeari. Nire buruari, berriz, zortziko bat jarriko nioke, espero ez nituen helburu batzuk lortu nituelako, eta deialdi garrantzitsuetan sartu nintzelako, besteak beste. Pozik nago egindakoarekin, eta esango nuke iazkoa errepikatzea zaila izango dela.

♦ **Denboraldi amaieran Iberdrola Ligako defentsarik onenaren saria jaso zenuen eta jokalaria gazte onena izateko hiru finalisten artean sartu zinen. Zer sentitu zenuen?**

Ez nuen espero inondik inora, eta sorpresa handia izan zen niretzat. Aipamen horiek guztiak ongi-etorriak dira, eta oso pozik nago. Lanean jarraitzeko motibazioa eman dit, azken batean ikusi dudalako lanak saria ekartzen duela.

♦ **Zein helburu dituzu aurtengo denboraldirako?**

Ez zait gustatzen helburu handiegiak jartzea, ez badira lortzen frustrazioak etortzen direlako. Beraz, iazko June baino apur bat hobe izatea da nire aurtengo helburua: Erasoan eta defentsan hobetzea, eta poliki-poliki taldean ardurua gehiago hartzea. Tal-

deari dagokionean, iazko postua hobetzea nahiko genuke. Aurtun hamabi talde bakarrik gaude gure multzoan, eta iazko postua lortuz gero, jaitsieratik bi postura geratuko ginateke. Beraz, iazko esperientzia faltaren eraginez egin genituen akatsak zuzendu eta postu hobe lortzea da talde moduan aurtengorako daukagun helburua.

♦ **Elgoibarren eskubaloirako afizio handia dago, baina, Barakaldon nola bizi dute eskubaloia?**

Barakaldoko pabilioia oso handia da, eta jende asko etortzen den arren, harmailak betetzea oso zaila da. Orduan ematen du eskubaloiak ez daukala indarririk, baina ez da horrela. Jendeak badauka zaletasuna, eta askok bizi dute eskubaloia. Iaz, esaterako, Erreginaren Kopa Barakaldon jokatu genuen, eta orduan pabilioia bete egin zen. Hori ikusita argi geratu zen bai Euskal Herrian, eta baita Barakaldon ere badagoela eskubaloirako zaletasuna.

♦ **Nolako esperientzia izan zen Erreginaren Kopa etxean jokatzea?**

Sentsazio gazi-gozoarekin geratu ginen. Lan handia egin genuen txapelketa prestatzen, eta lehenengo partidaren kanporatu gintuzten. Gogorra izan zen taldekide guztientzat. Baina etxean jokatzearen esperientzia sekulakoa izan zen. Jende pila bat etorri zen gu ikustera eta animatzera, eta hori eskertzekoa da. Pena izan zen guk ez genuela erantzun nahiko genukeen bezala.

♦ **Espainiako selekzioerako deia ere jaso zenuen. Nola asimilatu duzu hau guztia?**

Hasieran ezin nuen sinistu nagusien Espainiako selekzioerako deitu zidatela. Umetatik telebistan ikusi izan ditut jokalaria horiek, eta pistan beraiekin egongo nintzela pentsatzea bakarrik oso hun-

*“Sanlok erakutsi dit lanak duen garrantzia”*



June Loidi Sanlo, Zuazo eta Euskadiko eta Espainiako selekzioekin.

kigarria egin zitzaidan. Egia esan ez dakit oraindik guztiz asimilatu dudan. Aukera polita izan zen eta espero dut etorkizunean horrelakoak errepikatzea.

♦ **‘Ezina ekinez egina’ irakurtzen dugu zure kamisetan. Zer esaten dizu Sanloren lema horrek?**

Amore ematen ez duen klub bat garela erakusten du, beti aurrera egiten duena. Nahiz eta partidak galdu, ez garela eroriko eta beti borrokan jarraituko dugula esan nahi du. Sanlok zerbait erakutsi badit, lanak duen garrantzia izan da. Inork ez didala ezer oparitu eta lanik egin gabe ez dela ezer lortzen ikasi dut Sanlon. Ni burugogorra naiz, eta entrenatzaileek pazientzia handia izan dute nirekin. Eta ikasi dut baita ere denok ditugula egun txarrak, eta batzuetan gauzak ez direla irteten nahiko genukeen bezala, baina ezin garela horregatik behera etorri.

♦ **Eskubaloiak Elgoibarren daukan indarraren sekretua zein da?**

Ez dakit, baina sekulakoa da, eta Elgoibarren bizitakoa ez dut inoiz ahaztuko. Kiroldegia jendez beteta dagoela jokatzea oso hunkigarria da, eta afizio hori beste herri askotan ez dago. Ez dakit zein den arrazoia, baina espero dut Elgoibarrek eskubaloiarako daukan zaletasunak urte askoan irautea. Sanlok lan handia egin du, eta harro egoteko modukoa da. Formatzeko eta ikasteko harrobi ona da Sanlo, eta lan ona egiten dute. Kanpoko talde handiak ere Elgoibarko jokalariek fitxatzen hasi dira, eta hori seinale ona da.

♦ **Zein leku betetzen du eskubaloiak zure bizitzan?**

Nire denbora librearen zati garrantzitsua betetzen du, baina ez nik nahiko nukeena baino gehiago. Ikasten ere banabil, baina eskubaloien eraginez batzuetan ezin izaten naiz klasera joan. Aukera garrantzitsua da niretzat, eta horrelakoak bizitzan behin etortzen dira eta aprobetxatu egin behar dira. Ikasketak ere garrantzitsuak dira, baina horretarako gero ere izango dut denbora.

♦ **Espainiako selekzioak munduko txapelketa jokatuko du Japonian. Han izango al zara?**

Oso zaila ikusten dut. Iaz jokatutako pare bat txapelketa Espainiako selekzioarekin, baina baja bat betetzeko deitu ninduten, eta nire iturrien arabera, jokalaria hori laster egongo da jokatzeke prest. Baina haren ordezkotza izatea ere niretzako ohore handia da.

♦ **‘Guerreras’ deitzen diote emakumezkoen Espainiako selekzioari. Nolako taldea da?**

Talde serioa. Kantxatik kanpora oso atseginak izan dira denak nirekin, baina entrenamenduetan oso talde serioa da. Gogor entrenatzen dira, eta horrek erakutsi dit mundu hau benetan zer den.

♦ **2021ean Espainiak antolatuko du munduko eskubaloi txapelketa, eta horri begira, jokalaria gazteekin entrenatzen ari da Espainiako hautatzailea. Zer iruditzen zaizu?**

Ohore handi bat izan da niretzat errubera horretan sartu ahal izatea. Entrenatzaileek gertutik jarraitzen naute, eta iazko kontzertazioetan ere asko ikasi nuen. Espainian maila handiko jende asko dago, eta eurekin asko ikasten dut. 2021eko txapelketarako



*“Elgoibarren bizitakoa ez dut inoiz ahaztuko”*

nirekin kontatzea ondo egongo litzateke.

♦ **Gaur gaurkoz emakume bat bizi daiteke eskubaloitik?**

Espainian oso zaila da. Niri gaur egun ematen dit bizitzeko, baina etorkizunari begira, argi daukat ikasketak amaitu behar ditudala. Atzerrian batzuk bizi dira eskubaloitik, baina ez dira asko.

♦ **Prest egongo zinateke atzerriko talderen batera joateko?**

Ikasketak amaitu bitartean behintzat, ez. Esan dudan bezala, eskubaloitik bizitzea oso zaila da eta une honetan ikasketak bukatzea da nire helburua. Behin ikasketak amaituta, ez nizuke ezertzik esango. Atzerrian zer dagoen probatzea gustatuko litzaidake.

♦ **Euskal selekzioarekin ere jokatutakoa zara, ia maila guztietan. Zer eman dizu?**

Euskal selekzioa hirugarren familia bat da niretzat. Jende asko ezagutu eta lagun onak egiteko aukera eman dit. Horietako bat da orain Zuazon nirekin jokatzen duen Maddi Bengoetxea. Elkarrekin jokatzen dugu, pisua konpartitzen dugu eta harreman oso ona daukagu.

♦ **Zein da eskubaloia lotuta daukazun ametsa?**

Espainiako *Guerreras* taldean leku bat lortzea gustatuko litzaidake, baina oso zaila ikusten dut momentuz. Oso gaztea naiz. Nire amets nagusia eskubaloitik bizi ahal izatea izango litzateke. Eta Olinpiar Jokoak ere hor daude. Jokalaria guztien ametsa dira Olinpiar Jokoak, baina hitz potloak dira horiek. Hasteko, sailkatzea oso zaila da, eta gero taldean lekua lortu behar da, eta hori ere ez da erraza. Esperientzia hori bizitzea sekulakoa izango litzateke, baina badakit oso zaila dela, beraz, ez badut lortzen ez naiz behera etorriko.

♦ **Hamar urte barru non ikusten duzu zure burua?**

Ez dakit! Ez zait gustatzen etorkizunera begiratzea, momentua bizitzea gustatzen zait, eta egunetik egunera ikusiko dut.

## Ehun bat gaztek hartuko dute parte bihar Robotika Lehiaketan

Euskadiko Hezkuntza Robotika Txapelketaren hirugarren ekitaldia jokatuko dute bihar Elgoibarren, eta 8 eta 16 urte bitarteko ehun bat gaztek hartuko dute parte. Ikastolako frontoian izango da, 10:00etatik 13:00ak ingurura arte. Edizio honetarako erronka berriak ezarri dituzte antolatzaileek, gazteen artean sormena eta irtenbide teknologiko berritzaileak garatzeko gaitasuna sustatzeko. Elgoibarko Udalak sustatu du Euskadiko III. Hezkuntza Robotika Txapelketa, Debegesa Garapen Agentziarekin lankidetzan, eta hainbat erakunderen laguntza jaso du ekimenak, hala nola, Spri, Gipuzkoako Foru Aldundia, S.D. Eibar Fundazioa, Laboral Kutxa eta EPC enpresa. Txapelketa Doplay robotika enpresak antolatu du.



## Hiru bat hilabetez amaitu nahi dituzte Bolatokiko obrak



Joan zen astean hasi zituzten Bolatokiko obrak, eta hiru hilabetez amaitzea aurreikusi dute. Erdiko aldean dauden eskailerak kendu egingo dituzte, eta hor lortzen den espazioak harmailak izango ditu, kultur ekintzetan erabili ahal izateko. Udalak 161.072 euro jarriko ditu lanetarako. Elgoibarko Udalak 2018ko aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan aurkeztutako proiektuen artean boto gehien jaso zuena izan zen Bolatokiko parkea eraberritzea proposatzen zuena, 2.124 punturekin.

## Frankismoaren biktimak omendu zituzten joan zen asteburuan

Frankismoan kontzentrazio esparruetan edota kartzelan preso izandakoak omendu zituzten zapatuan Elgoibarren, Olasoko hilerriko Kolunbarioan. Memoria historikoaren aldeko Elgoibar 1936 taldeak antolatu zuen omenaldi-ekitaldia, eta Udal Txistulari Bandako kideek, Mautitza Txarangak eta Haritz Euskal Dantzari Taldekoek parte hartu zuten, bai eta hainbat udal ordezkari eta dozenaka herritarrek ere. Banan-banan irakurri zituzten Frankismoan preso egondakoen izen-abizenak, eta txaloka erantzun zuten ekitaldira batutakoek. Ekitaldia bukatzeko, lore eskaintza egin zuten Kolunbarioan. Domekan, bestalde, Zirardamendi-Aiastia fronte lerroan hildako gudariak omendu zituzten, Zirardamendin bertan. Aiastiako Murkaikupe frontoian atzean landatuta dagoen Genrikako arbolaren kimuari bisita egin eta gero, Zirardamendirantz jo zuten omenaldi ekitaldian parte hartu zuten lagunek. Bidean, lau gudariren gorpuak topatutako tokian lorak laga, eta Zirardamendiko gurutzetxoan beste lore sorta bat laga zuten, han hildako gudarien omenez. 1936ko irailaren 25ean Arana Goiri baitailoiko hamalau gudari hil zituzten Zirardamendiko fronteian, Mola jeneralaren tropen kontrako borroketan.





## Aita Agirre kultur jaia egingo dute urriaren 4an eta 5ean

Irailaren 17an zabaldu zuten Aita Agirre kulturgunea, eta da-goeneko martxan da, eta irekiera hori ospatzeko jaia urriko lehenengo asteburuan egingo du Udalak. Urriaren 4an eta 5ean izango dira ekitaldiak. Udal Musika Bandaren kalejirak zabalduko du egitaraua 19:00etan, eta ondoren, erraldoi eta buruhandiak irtengo dira, dultzaineroekin. 20:30ean Ainhoa Larrañagak kontzertua emango du, eta haren ostean, Mauxitxa txarangaren kalejira izango da. 22:30ean Taupada antzerki taldeak Buruak taup-taup antzezlanaren taularatuko du, eta 23:00etan Mapping-a egingo dute. 23:15ean Hesian taldeak kontzertua emango du. Zapatuan, berriz, ume eta nerabeentzako parkea jarriko dute, eta 19:00etan Betisua txarangaren kalejira egingo da.



## Hauteskundeetako propagandarik ez jasotzeko aukera dago

Espainiako Kongresurako hauteskundeak iragarri dituzte azaroaren 10erako, eta hamabost bat egun aurretik hasiko dute alderdi politikoek hauteskunde kanpaina. Herritarrek postontzian hauteskunde kanpainako propagandarik ez jasotzeko aukera daukate. Elgoibarren, Herritarren Arreta Zerbitzurako bulegoan egin daiteke eskaera, eta Mendaron, aldiz, udaletxean. Herritar bakoitza bere NANarekin joan beharko da, eta inprimaki bat bete beharko du. Internetez ere egin daiteke eskaera, [https://sede.ine.gob.es/oposicionPartidos/presentacion?lang=es\\_ES](https://sede.ine.gob.es/oposicionPartidos/presentacion?lang=es_ES) helbidean. Azken eguna urriaren 7a izango da.

## Herentzia eta oinordetzari buruzko hitzaldia antolatu du Haizeak

Haizea emakume taldeak antolatuta, herentzia, oinordetzak eta banaketak nola egin behar diren azalduko du Elena Laka abokatuak, betiere, zuzenbidearen ikuspegia oinarri hartuta. Urriaren 2an izango da saioa, 18:30etik aurrera, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## Erorikoak sahiesteko tailerra antolatu dute Jubilatuen Biltokian

Erorikoak sahiesteko tailerra antolatu dute 65 urtetik gorakoentzako. Urriaren 2an eta 9an izango dira saioak, Jubilatuen Biltokian. Interesatuek Osasun Zentroan edo Jubilatuen Biltokian (astelehen eta ostiraletan 11:00etatik 12:00etara) eman dezakete izena.

## Pedro Luis Ajuriagerra argazkilariak sari bat irabazi du Arabiar Emirerri Batuetan

Ongarri argazkilaritza taldeak antolatuta eta Europako Kirol Herriaren izendapenaren barruan, kirol argazkiak jarri ditu ikusgai Kultur Etxean Pedro Luis Ajuriagerra (Muskiz, 1974) argazkilariak, *Feel the sport* izenburupean. 22 lan aurkeztu ditu guztira, denak kirolarekin zerikusia dutenak. Hilaren 13an zabaldu zuten erakusketa, eta bihar izango da erakusketa ikusteko azken eguna. Ajuriagerrak hainbat sari eskuratu ditu bere ibilbidean, eta horien artean, bi aldiz irabazi du Elgoibarko Kirol Argazkien lehiaketa. Aste honetan bertan, beste sari bat gehitu du bere curriculumean. Arabiar Emirerri Batuetako Xposure Nazioarteko Lehiaketan saritu dute, arkitektura atalean. 15.000 argazkiren artean aukeratu dute bere lana.



## Rockak hartu zuen Mendaroko Garagartzako plaza zapatuan



Musikazalez bete zuen Gararock jaialdiak Garagartzako plaza zapatuan. Arratsaldean umeentzako eskulanak eta tailerrak egon ziren Mandira Studio taldeak gidatuta, eta 17:30ean hasi ziren kontzertuak. Zortzi musika taldek hartu zuten parte, bakoitzak berea eskainiz, eta ikusleentzako musika gosea asetuz. Kontzertu akustikoak izan ziren batzuk, elektronikoagoak besteak, eta rock estilokoak beste batzuk. Denak desberdinak eta denak bereziak. Photocall bat ere jarri zuten, rockeroz mozorrotuta argazkiak ateratzeko. Giro eta musika ona ez ziren falta izan. Antolatzaileak gustura geratu dira aurtengo Gararock edizioak eman duenarekin, eta balorazio oso positiboa egin dute. Herriak bat eginda antolatutako jaia izan da, eta aurreantzean ere elkarlanean jarraitzeko asmoa agertu dute.

## Antzinako ogibideei buruzko erakustaldia egingo dute urriaren 6an udaletxeko arkupeetan



Antzinako ogibideei buruzko erakustaldia antolatu du Erreminta Makinaren Museoak urriaren 6rako, Elgoibarko Udalaren eta Foru Aldundiaren laguntzarekin. Debarreneko profesionalen eskutik eskuzko grabaketaren teknika zuzenean azaltzen duen erakustaldia egingo da, eta honekin batera, artisauek erabiltzen zituzten lanabesak eta lan amaituak ere ikusi ahal izango dira. Erakustaldiaren ostean, 9-12 urte bitartekoentzako tailerrak egingo dituzte, doan. 11:30etik 13:00etara izango da, udaletxeko arkupeetan.

## Nuala elkartekoak zaldian ibili dira



Nuala Elkarteko neska-mutilak zaldian ibili ziren joan zen domekan, Lasturren. Zaldiak ukitu eta garbitu zituzten lehenik, eta gero, zaldi gainean ibili ziren. Danobatek emandako dirulaguntzei esker, beste pare bat saio ere egingo dituztela esan dute.

## Euskaltegietan izena emateko azken egunak

Euskara ikasteko interesatuek azken egunak dituzte euskaltegietan izena emateko. Udal Euskaltegia Aita Agirre kulturgunean dago (943 742 731 / [udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus](mailto:udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus)). AEK euskaltegia, berriz, Gabriel Krutzelaegi kalean dago (607 601 423 / [elgoibar@aek.eus](mailto:elgoibar@aek.eus))

## San Roke jaietako errifaren irabazlea

San Roke jaietan janariz eta edariz beteriko orgatila zozketatu zuten, eta Juan Carlos Larreategi izan da sariduna.






Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**S**anta Ana kaletik Antonio Arrillaga kalera doan tuneleko lurra oso labainkorra da: "Santa Ana eta Antonio Arrillaga kaleak lotzen dituen tunela oso hezea da, eta ondorioz, lurra oso labainkor egoten da. Jende askok irrist egiten du, eta oso arriskutsua da. Herriko beste gune batzuk ere oso irristakorrek ziren eta Udalak egin zituen horren kontrako tratamenduak. Uste dugu gune honek ere behar duela". Hirigintza Saileko arduradunak esan du tunel hau ere sartuko dutela tratatuko diren guneen artean.



**A**nbulatorio aurreko igogailua askotan matxuratzten da: "Joan zen astean bost aldiz matxuratu zen igogailua, eta jendea bertan harrapatuta geratu zen, denbora luzez. Azkenaldian sarritan matxuratzten da, eta horrek oztopo handia sortzen du. Igogailu hori asko erabiltzen du jendeak, ohitu egin gara San Rokera joateko igogailu hori hartzen, eta erosketekin, ume aulkiarekin edo gurgildun aukian San Rokera igotzea ez da batere eroso igogailua ez dabilenean". Hirigintzako zinegotziak esan du San Bartolome jaietako zapatuan hondatu zutela igogailua erabiltzaile batzuek, eta ordutik arazoak eman dituela. Igogailuaren kabina aldatzeko asmoa dauka Udalak, eta horretarako aurrekontua onartu dute dagoeneko, baina obra horrek hilabete inguruan igogailua geldirik edukitzea eskatzen du, eta ondorioz, aldaketa hori noiz egin erabaki behar dute, ahalik eta kalte gutxien eragiteko erabiltzaileei.



**M**aalako piboteak automatikoki ixten dira 11:00etan: "Erdigunea trafikoarentzat itxi egiten da 11:00etan, eta autoentzako sarrera ixteko piboteak daude Maalan. Automatikoki igotzen dira piboteak, inolako seinale edo zaratarik egin gabe, eta oso arriskutsua da. Joan zen astean erori egin nintzen, eta ez naiz han erori den lehenengo herritarra. Uste dut seinalaren bat egin beharko lukeela piboteak igotzen hastera doanean". Hirigintzatik esan dute mantentze lanak egiten dituen enpresarekin jarriko direla harremanetan, galdeztzeko ea posible den seinale akustikoren bat gehitzea piboteei.



**T**oletxegaineko igogailuaren parean harrizko bloke handi bat dago aparkalekuak kentzen: "Aspalditik dago harrizko bloke handi bat Gabriel Krutzelaegi kalean, igogailuaren parean, eta aparkalekuak kentzen ditu. Jakin nahiko genuke zein den bloke horren funtzioa eta zergatik ez duten kentzen". Hirigintza Sailetik jakinarazi dutenez, zebra-bidea gurutzatzeko orduan autoak datozela hobeto ikusteko ipini zuten, oinezkoen segurtasuna bermatzeko.



Arg.: Dani Sanchez

# “Euskaltzaleen komunitatea erdigunera ekarri dugu”

## ► ELENA LAKA ETA KIKE AMONARRIZ

TOPAGUNeko LEHENDAKARIA ETA TOPAGUNeko LEHENDAKARITZARAKO HAUTAGAIA

Elena Laka 2014ko apirila ezker Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari izan da eta kargua utzi egingo du. Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaritzarako hautagai moduan aurkeztuko da Kike Amonarriz, gaur, ostirala, Andoainen egingo den batzar nagusian. Hark hartuko du Lakaren testigua. Elkarrizketa osorik irakurtzeko: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)

- MONIKA BELASTEGI (GOIENA) -

### ◆ Biak ere beterranoak zarete Topagunean. Zure kasuan, Elena, 2014tik lehendakaria. Oraintxe laga duzu; zergatik?

**Elena Laka:** Bost urte badira zerbaite, eta lagatzeko momentu bat badela uste dut. Bost urtean ibili naiz, ahal izan dudaneurrian, buru-belarri sartuta eta inplikaturatuta, eta orain, badator beste lehendakari bat. Gauza berriak egingo ditu, eta aro berri bat dator. Nik uste dut nire lana egin dudala, eta gizarte mugimenduetan aldaketak hauek gertatzea oso onuragarria dela. Pertsonen osatutako erakunde bat da, eta nire ustez ezin da egonkortu pertsona bat, ez delako ona. Nire lana egin dut, oso-oso pozik egin dut, eta Euskaltzaleen Topaguneari berba onak besterik ez

ditut esateko. Gainera, hau ez da nire lana. Hemen boluntario lana egiten dut, oso gustura. Uste dut aktibista moduan edozein pertsonari eskatu eta eman beharreko lan bat dela, eta, hala ere, jaso egiten da gehiago eman baino. Orain, Kike Amonarrizen eta bere zuzendaritza batzordearen esku geldituko da dena. Nik aldamenetik lagunduko dut.

### ◆ Pozik uzten duzu? Arantzaxoren bat?

**E.L.:** Balorazioa, modu pertsonalean eta aktibista moduan, eta mugimendu moduan intentsioa eta positiboa izan da. Maila pertsonalean geratzen naiz izandako harreman guztiekin, bai gizarte mugimenduekin, eragileekin eta erakundeekin. Fase ezberdinak igaro ditugu, baina guztiak emankorrak eta oso

aberatsak izan dira. Euskaltzaleen Topaguneari jauzia eman duela uste dut. 2014an, Mikel Irizar ordurako lehendakariak zioen etorkizuna genuela irabazteko, eta uste dut pusketatxo bat irabazi dugula. Euskaltzaleen komunitatea erdigunera ekarri dugu eta hartzen dihardugu lekua, eta ez da inork ematen digulako, baizik eta guk egin dugulako jauzi hori. Baina oraindik asko dago hobetzeko. Arantzak? Baita ere. Uste dut mugimenduen kohezioan badagoela oraindik sakontzeko eta lantzeko tarteak. Nik izan ditudan mugak nire jardun profesionalagatik izan dira. Boluntario ibili naiz, eta 24 ordu ditugun egunak, ez gehiago. Baina mugimenduen emendik aurrerako jauziak talde berriarekin egingo ditu.

#### ◆ Nola hartzen duzu lekukoa, Kike?

**Kike Amonarriz:** Ilusio handiz! Elenak esan duen bezala, bost urte hauetan berak lideratu duen mugimendu guztia ikaragarria izan da. Jauzi ikaragarria eman dela uste dut, ilusio handiz bizi izan dugun jauzi bat, gainera. Aurreko lehen-dakari guztiek epe bat bete dutela ikusi dut, eta beti gorantzako mugimenduan. Salto handi hori Elenarekin heldu da. Batetik, mugimendua zabaldu egin da Euskaraldiak ekarri duen guztiarekin. Eta ez bakarrik euskal komunitateak hartu duen protagonismoa, baizik eta horrek aurretik zuen sukalde-lan guztia, elkarlanaren ideia guztia, Euskal Herri osoan egin ahal izatea. Nire ustez, Elenarekin diskurtso al-daketa bat ere etorri da. Euskararen inguruan hitz egiteko modu berri bat, eta Elenak euskalgintzaren bilakaera hori guztiori irudikatu du. Orain, nik ilusioarekin hartuko dut, baina baita erantzukizunarekin ere. Euskaraldiak euskalgintzaren eragin ahalmena biderkatu du, eta elkarlanaren bidea sakondu egin behar da. Erronka, beraz, orain arte lortutakoa zaintzea izango da.

**E.L.:** Zu izango zara lehendakaria eta lideratuko duzu taldea, baina sekulako lantaldea dago Euskaltzaleen Topagunean. Zuzendaritza batzordetik hasita, lantaldeak, euskara elkarlanean boluntario eta langileak, hainbat herritan sortu diren Euskaraldiko batzordeak... Jendetza ikaragarria dago momentu honetan, Euskal Herri osoan, sekulako lana egiten. Hau gizarte mugimendu bat da, eta jende asko mugitzen da norabide berean.

#### ◆ Euskaraldia aipatu duzu, Kike. Uste duzue Euskaraldiak euskalgintzari eraldaketa ekarri diola?

**E.L.:** Euskaraldia prozesu luze baten azkeneko begia izan da, nahiz eta jarraipena izango duen gerora. Ez da horrelako batean sortu. Euskaltzaleen Topagunean lan handia egin da aurretik. Lehenengo, mugimenduaren barruan; eta gero, euskalgintzako gainerako eragileekin, erakundeekin... Egin den lana, sortu den giroa... horren ondorio izan da Euskaraldia. Duela hamar urte Euskaraldia ezin

izango zen egin, ia seguru, beste egoera batean geundelako. Egungo egoera zurbiena da, sareak egitearena. Eta elkarlanaren bitartez Euskal Herria euskalduntzea da helburua.

#### ◆ Hortaz, eragileen eta erakundeen arteko elkarlana benetakoa izan da?

**E.L.:** Elkarlana edo zubigintza esaten dugunean eta egiten ditugunean argazkiak horren inguruan, ez gara bakarrik titular batez ari, ez gara bakarrik argazki batez ari. Horrek, barruan, benetako gauzatzea du, eskuz esku elkarlanean gaudelako konfiantza osoz. Erabat garrantzitsua da konfiantza hori, norberak bere esparrua gordez eta elkarlanean arituz. Horrek ekarri ahal izan duena ikaragarria izan da, eta ondorioa Euskaraldia izan da. Zer gertatu da? Elkarlan horren ondorioz sortu dugula ariketa sozial bat eta 200.000 lagunek eman dutela izena Euskal Herri osoan.

*“Hau gizarte mugimendu bat da eta jende asko mugitzen da norabide berean”*

- ELENA LAKA -

#### ◆ Topagunearen azken lan-lerro nagusia Euskaraldia izan da, baina baditu beste batzuk ere. Bere jardueraren zati garrantzitsu bat kultura eta aisialdia izan da. Azken urteotako proposamen asko gazteei zuzendutakoak izan dira. Nola ikusten dituzue gazteak?

**E.L.:** Arriskutsua da belaunaldi gazteak edozein orokortasunetan sartzea, ez baita gauza bera 13 urteko bat edo 20 urteko bat, edo herri bateko bat eta beste bateko bat. Gazteek, oro har, hezkuntzan euskara jaso dute. Beraz, ia %100 euskara ulertzeko gai direla esan daiteke.

**K.A.:** Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako iparraldean, ia-ia ezagutzaren unibertsalizazioan gaude, 25 urtetik beherakoan. Nafarroako zona mistoa esaten zaion horretan ere, gazteen artean ezagutza nahiko altua da. Iparraldean,

oraindik kopurua txikia izan arren, badoa hobetzen. Adin horietan potentzialitate ikaragarria dugu.

**E.L.:** Jende horri komunitate bat eskaini behar diogu. Gasteizko auzo baten euskaraz ikasi duen eta euskara ulertzeko eta hitz egiteko gai den ume batek ez badu gero non erabili, alferrik ari gara. Hori da, beraz, gure komunitatearen zereginetako bat. Jende horri komunitate bat eskaintzea, aukerak ematea. Guk ezin ditugu derri-gortu bide bat aukeratzeko, eurek egin behar dute, baina guk ahalegina egin behar dugu espazioak, bideak eta aukerak eskaintzeko, haiek ikus dezaten egin duten esfortzu hori baliagarria dela. Bestalde, gazteek hitz egiten dugu, baina momentu honetan populazioak gehiago jotzen du goitik. Euskal Herrian, oro har, jendea nagusia da, eta gizartean eragin handia duen jende heldu asko dugu. Horiei ere aukerak eskaini behar zaizkie gure komunitatean aktibatzeke eta aktibista izan daitezkeen euskararen munduan.

**K.A.:** Kezketako bat bada nola iritsi belaunaldi gazteetara, kontuan hartuta Euskaltzaleen Topagunea mugimendu heldu bat dela. Beraz, hor badugu barne hausnarketa bat egin beharra gazte mugimendu horri lekua egiteko, euren ahotsak entzuteko eta protagonismoa emateko. Baina askotan entzun izan dugu nola lortu gazteek euskaraz egin dezaten. Duela gutxi irakurri nuen esaldi batek poztu egin ninduen: "Nola lortu helduek euskaraz gehiago egitea?". Gazte batek egin zuen ekarpena izan zen. Horrek ikuspegi aldaketa bat datorrela esan nahi du, eta ikuspegi aldaketa horrek esan nahi du: "Zuek zarete euskaraz hitz egiten ez duzuenak edo gutxi egiten duzuenak, eta hasi adibide ona ematen". Nire ustez, gure belaunaldiak bi erantzukizun handi ditu, euskaldunak ala erdaldunak izan. Bata da ahalik eta euskara gehien egitea eta bigarrena, baldintzak sortzea askoz ere euskaldunagoa den belaunaldi berri horrek euskaraz egin ahal dezan. Hor mezu indartsu bat dago entitateei begira, horregatik, oso itxaropentsu nago gazte munduari begira.

## Koldo Lizarralde hil da, historialaria eta etnografoa eta Elgoibarko herrigintzan eragile nagusia izan den gizona

Joan zen astean ondoezak eman eta astelehenean hil zen Koldo Lizarralde, 69 urterekin. Sortzez pasaiarra zen, Pasai San Pedrokoa, eta ikasketaz, historialaria eta etnografoa. Lan kontuek ekarri zuten Elgoibarrera, 1981. urtean, eta geroztik, herriko hainbat elkarteren bueltan ibili da eragile lanetan. Gorputz-arima saiatu da herrigintzan, eta horregatik, haren heriotza Elgoibarrentzat galera handia izan dela nabarmendu dute orrialde hauetara ekarritako lagun guztiek. Eguaztenean izan zen haren aldeko hileta-elizkizuna San Bartolome parrokian eta ez zen eskaintza berezirik falta izan. Parrokiako abesbatzak hainbat kantu abestu zituen haren omenez, eta Haritz dantza taldekoek agurra dantzatu zioten irteeran, eta arku ere egin zioten.

- AINARA ARGOITIA -



Elgoibarri buruz gutxi jakingo zuten Koldo Lizarraldekin. Historialaria eta etnografoa zen, behatzaile fina, baina batez ere, herria egiten dutenetakoa zen. Jose Migel Barandiaran antropologo, etnografo eta apaizak (Ataun, 1888-1991) Euskal Herriko ohiuren eta bizimoduaren berri jasotzeko sortutako Etniker taldeetako kidea zen, eta Euskal Herriko Kulturaren Atlas Etnografikorako landa lana egin zuen Elgoibarren, 1988az geroztik. 1989. urtetik, gainera, Eusko Ikaskuntzako kide ere bazen. Euskal Herriko gizarte-erronkei erantzun globalak eta bateratzaileak emateko sortu zuten Eusko Ikaskuntza Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Foru Aldundiek, 1918an, eta kezka hori bere egiten zuen Lizarraldekin. Era berean, Erroten Kontserbaziorako eta Ikerketarako Elkarteko (A.C.E.M.) kidea ere bazen, 1998az geroztik, eta makina bat artikulua idatzi zituen, Atlas Etnografikorako, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen Buletinerako, Eusko Ikaskuntzako Sailetako Koadernoetarako edota Elgoibarko jaietako aldizkarirako, besteak beste. Argitaratu zituen liburuak ere asko dira. Azkena iazko abenduan plazaratu zuen: *Club Deportivo Elgoibar 1917-2017*. Urteak egin zituen ikertzen eta ikertutakoa dibulgatzen, eta egiteko horretan harreman estua izan zuen azkeneko hogeita hamar bat urtean Blanca Salegi Elgoibarko Kultura teknikariarekin. Eta ez du ahazteko Salegik. "1990. urtean argitaratu zenuen *Convento de San Francisco* liburu, eta

geroztik sarri bildu ginen. Zure liburuek eta jaietako egitarauan argitaratzen zenituen artikuluek markatzen zuten gure bileren maiztasuna. Inurri bat bezalakoa zinen, artiboan sartuta beti, jaso ezean galdu egiten den informazio horren bila, betirako ahazturan gelditzen den horren bila. Historiaren erreskatatzaile zinen. Espazio faltagatik artikulua mozten nizkizun nik, eta haserretu egiten zinen zu, baina azkeneko beti iristen ginen akordiora. Bake gizona zinen", idatzi dio Salegik agur-idatzian. Lizarralderen jakintza eta laguntzeko prestutasuna azpimarratu ditu Salegik. "Kaleren bati izenen bat eman behar zitzaionean ere, beti zeneukan proposamen bat, toponimoren bat: Jausoro, Basarte, Kurutzelaegi... [...]. Eskerrik asko, Koldo, eman didazun guztiagatik eta Elgoibarri utzi diozun legatuagatik".

Eta handia da idatziz utzitako legatua. Zenba ezin beste artikulua eta dozenatik gora liburu: *El convento de San Francisco* (1989), *Apuntes etnográficos de Elgoibar 1. parte* (1994), *Elgoibar, los trabajos y los siglos* (1995), *El hospital de San Lázaro y la ermita de la Magdalena* (1995), *Fiestas populares de Elgoibar* (1996), *Apuntes etnográficos II. Ritos de pasaje* (1997), *Elgoibar dantzan* (1999), *Las ermitas de Gipuzkoa* (2000), *Elgoibar y sus molinos* (2001), *El viejo frontón de Kallengoien 1751-2003*. *Apuntes de la historia de la pelota en Elgoibar* (2003), *Gure Bide Elkartea 1959-2009*; eta azkena: *Club Deportivo Elgoibar 1917-2017* (2018)...

## Herrigintzari egindako ekarpena

Beste ezeren gainetik, baina, militantea zen Koldo Lizarralde. Herriko hainbat kultur eta kirol elkarte eta taldetan ibili zen lanean, eta haren lanerako prestutasuna eta eskuzabaltasuna nabarmendu dituzte ezagutu zuten guztiek, bai eta geuk ere, BARREnek eskatu bestetan eman ziolako Lizarralde bere onena proiektu honi, beti eskuzabal. Gure Biden, Trinitateetako danborradan, C.D. Elgoibarren, Haritz Euskal Dantzari Taldean, Altzolatarren Dorretxea Zigilu Elkartearen, Parrokiako abesbatzan, Etxegina santa eskeko taldean, Kale Kantariak taldean... arrastoa laga du Lizarralde.

C.D. Elgoibarren Mendeurrenako Batzordean, esate baterako, buru-belarri aritu da azkeneko lau urte pasatxoan Lizarralde eta Juan Mari Iriondo batzordekideak hitz onak baino ez ditu lagunarentzat. "Inurri lana egin du guretzat. Konta ezin beste ordu eman ditu artxiboetara joan-etorrian, eta berak bakarrik egin zezakeen lana egin du. Batzordean beti egon da lanerako gogoz, laguntzeko prest. Gizon langilea izan da Koldo, hitzekoa, eskuzabala, gertukoa eta alaia. Batzordean, liburua idazteko ardura eman genion berez, baina bere beharra izan genuen guztietan erantzun zuen, libururako lanekin eta etxeko ardurekin gainezka ibili arren. Klu-bean, baina, ez zuen bestelako ardurarik izan sekula, nik dakidanez". Estimutan zuen, hala ere, C.D. Elgoibarren familiak. "Egindako lan izugarria aitortu eta gure esker ona agertu baino ezin dugu egin", esan du Jon Basurto presidentek. Hain zuzen ere, C.D. Elgoibarren mendeurrenaren harira kolaboratu zuen azkenekoz Altzolatarren Dorretxea Filatelia Elkartearekin ere, iaz. "Urtero herriko

elkarte edo gairen bat omendu ohi dugu zigilu erakusketan eta beti jotzen genuen berarengana galdezka. 2016an, San Bartolome parrokiaren lehenengo meza eman zuteneko 300. urteurrenari buruz idatzi zigun, 2010ean, Udal Musika Bandaren 125. urtemugari buruz eta 2009an, Zubi Ondo eta Gure Bide elkartearen 50. urtemugan inguruan. Sekula ez zigun Koldok ezetz eman", gogoratu du Jose Mari Etxaniz elkarteko buruak.

Gure Bide elkarteko bazkide zen Koldo Lizarralde. San Bartolome bezperan jokatu ohi den Etxaniz Memoriale txirrindulari lasterketako antolakuntza taldekoa zen, eta makina bat ordu eman izan zituzten elkarrekin Manu Condek eta biek. "Lagun maitagarri bat galdu dut. Koldoren heriotza galera handia da Elgoibarrentzat. Inork ez dizu bestelakorik esango", dio. Gure Biden, San Bartolome parrokiako abesbatzan eta Etxegina santa eskeko taldean elkarrekin ibili dira urteetan Lizarralde eta Conde, eta hunkituta hitz egin du. "Hartueman handia geneukan, eta gurean, etxekoa zen. Koldorekin dena zen erraza. Edozer gauzari heltzen zion, laguntza eskatuz gero. Gizon arduratsua zen, eta oso-oso metodikoa lanean. Etxaniz memorialeko ibilbidean aldaketaren bat egin behar genuela esan eta ez zuen ibilbide osoa erreparatu

arteko onik izaten. Dena ondo zegoela ziurtatu behar zuen. Gipuzkoako Txirrindularitza Federaziora ere makina bat ostera egin genituen elkarrekin, eta paper artean zenbat ordu ez ote ditu pasa! Gizon jakintsua zen".

Parrokiako abesbatzan egin zuen lagun Nieves Loiola abesbatzakideak. Haren katurako afizioa eta "ikasteko gogo bizia" nabarmendu ditu Loiolak. "Ausarta zen, beti aurrera egiten zuena, eta hori abesbatza batean oso garrantzitsua da, kikiltzen denak ez duelako bere ahotsaren onena ematen", gehitu du. Kantuak bizi zuen Lizarralde, eta ahal zuen guztietan iriteten zen kalera kantura Kale Kantariak taldekoekin ere. Hunkituta hitz egin du Anabel Irusta Kale Kantariak taldeko arduradunak ere. Duela hamar bat urte sortu zuten Kale Kantariak taldea eta sustatzaitako bat izan zen Lizarralde. Geroztik, talderako pieza ezinbestekoa izan dela dio Irustak, eta biharko emanaldia berari eskainiko diotela. "Bera ez balitz lagata neukan nik. Dena uzteko egon naizenetan ere, beti animatu nau jarraitzera eta beti izan dut gertu laguntzeko. Osasunez makalago ibili denean ere, ez dit sekula hutsik egin.

Edozein lani heltzen zion. Gizon ona izan da Koldo, gizon apala, zaratarik ateratzen ez dutenetakoa, alaia, baikorra eta talde giroa sortzekoa, behin ere ez liskarretan galtzekoa. Ez dakit bizi zen artean behar beste eskertu dion Elgoibarrek gure herriaren alde egin duen dena". Bat dator Juan Carlos Arrieta ere, Kale Kantarien sustatzaile taldekoa. "Nekez topatuko dugu Koldo moduko beste bat". Kanturako zaletasunak eta Euskal Herriko usadioari eutsi nahiak eraman zuen Etxegina taldera ere Lizarralde. Aspaldiko laguna zuen Jon Peli Uri-

guenek, esaterako. "Etxeginan beti izan dugu harreman ona Koldorekin; taldeko bat zen. Gizon inplikatu zen, leiala, laguna, eta alaia. Talderako lagun ona".

Euskal Haritz Dantzari Taldean ere estimutan zuten oso Koldo Lizarralde. "Beti izan dugu ondoan. Beti egon da edozeini laguntzeko prest, eta guk urriaren 6an egingo dugun ezpata dantza ere berari esker egiten da. Gizon umila zen, lanerakoa", azpimarratu du Jon Lizarralde. *Elgoibar Dantzan (1999)* libururako egindako lana eta bereziki Errosarioko Ama Birjinaren egunean zein San Bartolomeren omenezko festetan Elgoibarren XVI. mendean egiten zen ezpata dantza berreskuratzeko egin zuen lana nabarmendu ditu Lizarralde hilberriak dantza taldeari egindako ekarpenetik. "Bera etorri zitzaigun taldera ezpata dantza berreskuratzeko kontuarekin, eta hasi ginen batzen Jose Inazio Sarasua zena, Juan Antonio Urbeltz, bera eta laurok. Baina lehen tirakada Koldok eman zuen". Eta Koldo Lizarralde berak ere parte hartu izan du Errosarioko ezpata dantzan, arkabuzero lanetan. "Egiten dugun dena herriarentzat egiten dugu guk, norik bere taldetik, eta esan dezakegu pertsona on-on bat galdu duela Elgoibarrek", gehitu du.

*"Gizon langilea  
izan da Koldo,  
hitzekoa,  
eskuzabala,  
gertukoa eta alaia"*

- JUAN MARI IRIONDO -

## ▶ IRATI AGIRREAZALDEGI BERTSOZALEA

Elgoibarko bertso-eskolan hasi zen umetan bertsoetan, Angel Ugarteburu maisu zuela, eta Bergarako bertso-eskolan jarraitu zuen gero. Geroztik, bertsoetan nahiz aurkezle lanetan aritu da Irati Agirreazaldegi (Elgoibar, 1977) bateko eta besteko bertso-saioetan, baina bere ekarpena ez da mikrofono aurrean egindako lanera mugatzen. Lan isilagoan ere ari da Bertsozale Elkartearentzat, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako gai-jartzaileen taldera batu zenetik. Domekan, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-zortzirenetako azken aurreko saioa jokatu dute Elgoibarren (Herriko Antzokia, 17:00etan), eta txapelketa aitzaki hartu dugu gai-jartzaileen lanaz hitz egiteko.

- AINARA ARGOITIA -



# “Saiatzen gara bidea jartzen bertsolariak bere onena eman dezan oholtzan”

### ◆ Noiz hasi zinen bertsoarako gaiak jartzen?

Elgoibarko Izarrak antolatzen duen Eguberrietako bertso-saiorako jarri nituen lehenengoz gaiak, taldean. Estreinako aldia noiz izan zen ez naiz akordatzen, baina gai-jartzaile moduan egindako lehenengo lanetakoa izango zen hura. Sasoi beretsuan, Bergarako bertso-eskolan nenbilela, jarri nituen gaiak han ere beste saioaren batzutarako eta aurkeztu ere egin nituen bertso-saioaren batzuk, baina Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako gai-jartzaileen taldera duela hamabi urte batu nintzen. Lau urtez behin izaten da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, eta geroztik, hor dihardut. Bi tarte horretan, Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketarako gaiak lantzen ere ibili gara, horko gaiak ere gure taldean sortzen ditugulako [Urtero egiten da Eskolarteko Bertsolari Txapelketa].

### ◆ Isilpean gelditzen da askotan gai-jartzaileen lana, baina zuek gabe zaila da saio bat aurrera ateratzea. Gai-jartzaileen lana erabakiorra al da?

Ez nuke esango erabakiorra denik, azkenean bertsolaritza bat-batekoa delako eta bertsolarien lana ere hor dagoelako, baina egia da saio ona izateko aukera handitzen duela gai-jartzaileak bere lanak ondo eginda eramateak. Saioetara bertsolariei entzutera doa bertsozalea, eta gu saiatzen gara bidea jartzen bertsolariak bere onena eman dezan oholtzan, eta iru-

ditzen zait bertsozaleak gero eta gehiago baloratzen duela gure lana ere.

### ◆ Nola sortzen dituzue gaiak?

Iturri askotatik edaten du gai-jartzaile batek. Esango nuke gai-jartzailearen lana eta ardurua badela aktualitatea jarraitzea, eta jarraitzen dugu. Gai baterako aitzakia, baina, edonon topa genezake. Izan daiteke gure inguruko norbaiti gertatutako zerbait, herrian bolo-bolo dabilen kontu bat, bertso-saioaren baten irten den gairen baten moldaketa... Koaderno txo batekin ibiltzen naiz ni txapelketako garaian eta bururatzen zaidan guztia apuntatzen dut, koadernoan ez bada, sakelako telefonoan, hori beti aldean erabiltzen dut-eta. Ideia solteak izaten dira, eta horiei forma ematea izaten da bigarren lana. Gure taldean hamabost bat lagun gara. Ez gara denok bertsoetan ibilitakoak, baina bai bertsozaleak eta bertsolaritza oinarritzako bat dakigunak, eta badakigu bertsolariari beti laga behar diogula tarte eta aukera gaien inguruan iritzia emateko. Horregatik, saiatzen gara gaien abanikoa ahalik eta zabalena izan dadin. Baina esan bezala, taldean lanbide ezberdinetako lagunak gaude, nork bere ingurua dauka, nork bere ikuspuntua eta nork bere inspirazio-iturriak, eta normalean, ez da gairik falta izaten.

### ◆ Txapelketa baino zenbat aurretik hasten da zuen lana, eta nola antolatzen zarete?

Txapelketa maiatzean hasi zen, Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasearekin, eta ordurako hasi ginen gaien zakua betetzen. Hori izaten da gure lehenengo lana: zakua betetzea. Horretarako, gutako bakoitzak bere gai zerrenda eramaten du bilerara. Izan daitezke bururatutako puntu guztiak edo saio bakar batean bertsolariek egin behar dituzten ariketa guztietarako propio lantutako gaiak, baina denak jendearrean aurkezteko moduan lantuta eramaten ditugu. Txapelketa hasi baino hiru bat hilabete aurretik hasten gara zakua betetzen. Hilean behin batzartzen





gara, eta hor ikusten dugu eraman ditugun gaiak balekoak diren edo ez. Gero, behin txapelketa hasita, astero-astero biltzen gara Villabonan. Ez pentsa erraza izaten denik gai bat nola aurkeztu adostea. Jendeak pentsa dezake fase bakoitza hasterako gai guztiak prest dauzkagula, baina hori ez da egia, txapelketa hasterako zakua beteta izaten dugun arren, gaiak astean-astean fintzen ditugulako, eta gertatzen delako ariketa jakin batzuetarako gai berriak sortu behar izatea ere, behar beste ez dauzkagulako.

♦ **Zein irizpideren arabera erabakitzen dituzue gaiak balekoak diren ala ez?**

Gaiak kanturako bidea eman behar dio bertsolariari, eta irizpide nagusia hori da: ezin du itxiegia izan, ezin zaio gaia bideratuegi eman. Ofizioko ariketan bi bertsolari aritzen dira, eta gaia jartzeko orduan kontuan hartu behar da biek izan behar dituztela postura ezberdinak arrazoitzeko beste aukera. Baina gauza asko hartu behar dira kontuan: gaiak ez errepikatzea, bertsolari bati beti rol bera ez ematea... Nolanahi ere, gertatzen da guk gai bati kanturako mila bide aurreikustea eta gero bertsolari guztiak bide beretik jotzea ere. Bertsolaritza bat-bateko jolasa da, eta onerako zein txarrerako, aurreikuspenak ez dira beti betetzen. Horregatik, saioen ondoren, eta zer esanik ez txapelketa ondorenean, beti egiten da balorazio bat, eta hor oso kontuan hartzen da bertsolarien iritzia, bai eta entzuleena ere.

♦ **Txapelketan gai serioegietarako joera dagoen ustea oso zabaldua dago. Zer diozu?**

Ez nago horrekin ados. Gaiak askotarikoak izaten dira eta umorea egiteko aukera ere ematen dute, baina bertsolariak erabakitzen du gero zer eta nola kantatu. Egia da, neurri txikietan, beti izaten duela bertsolariak umorerako joera handiagoa eta gu ere saiatzen garela horretarako bidea ematen, baina orokorrean gai guztiak ematen dute batetik edo bestetik jotzeko aukera.

♦ **Mikrofono aurrean ibilitakoa zara. Non sentitzen zara ero-soago: aurrean ala atzean?**

Atzean. Bertsotan jarraitu izan banu, ez dakit zer erantzungo nizukeen, baina atzean beti ibili naiz lasaiago. Orain momentuan jarri ere ez nintzateke egingo mikrofono aurrean. Gai-jartzaileen taldera batu nintzenetik aurkezle lanak ere egin ditut 2007ko eta 2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketetako saioetan, baina orain, ez. Gai-jartzaileon artean oso talde-giro eta lan-giro ona daukagu, eta ikaragarri estimatzen dut hori. 18:00etan hasi eta 23:00ak arte luzatu izan dira gure bilera batzuk, baina giroa hain da ona, gus-tura aritzen garela. Eztabaidan luzatzen gara, baina haserrik ez dugu izan gaur arte, eta bilera guztiak mokadutxo batekin bukatzen ditugu.

♦ **Gai-jartzaile batek nola bizi ditu saioak? Bertsolaria kantuan hasterako hasten da zuen burua ere lanean?**

Ez, nirea ez behintzat. Ni saioetara entzutera joaten naiz, gozatzera. Ikusten ditut entzule batzuk koaderno eskuan hartu eta hau edo beste apuntatzen, baina ni ez. Ez naiz epaile paperean joaten saioetara, jakin ere ez nukeelako egingo zer epaitu.

*“Gaiak ezin du itxiegia izan, ezin zaio bertsolariari gaia bideratuegi eman”*

**FINAL-ZORTZIRENETAKO SAIOA ELGOIBARREN (Irailak 29, 17:00etan, Herriko Antzokian)**

**Bertsolariak:**



Iñaki Gurrutxaga Zubimendi  
(Orio, 1981)



Unai Gaztelumendi Arandia  
(Añorga, 1988)



Endika Igartzabal Murua  
(Gabiria, 1991)



Jokin Uranga Isuskiza  
(Azpeitia, 1980)



Ane Labaka Mayoz  
(Lasarte-Oria, 1992)



Eñaut Martikorena Lizaso  
(Hernani, 1995)



Aurkezlea: Ane Ezenarro Beristain (Eibar, 1991)

Iñaki Gurrutxaga eta Jokin Uranga bertso irakasle ibili izan dira Elgoibarko eta Mendaroko ikastetxeetan. Irati Agirreazaldegi eta bertsotan jardungo diren bi horiez gain, bada Elgoibarren laugarren lagun bat Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarekin lotura estua duena: Eneritz Azkue epaimahaikidea.



*Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112*



## *Maria Asun Otaegi Iriarte*

2019ko uztailaren 22an hil zen, 67 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

## *Enrike Etxaniz Osoro*

*"Munaundi"*

2018ko irailaren 30ean hil zen, 79 urte zituela. Haren oroimenez  
I. urteurreneko meza izango da, domekan, irailaren 29an,  
12:30ean Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

## *Jose Horrillo Rayo*

2018ko irailaren 25ean hil zen, 66 urte zituela. Haren oroimenez  
I. urteurreneko meza izango da, domekan, irailaren 29an, 12:30ean  
Mendaroko Garagartzako elizan. Joango zaretanoi, alde zurretik eskerrak.

***Beti gogoan zaitugu.***

Etxekoak



X. URTEURRENA

## *Ane Perez Alberdi*

2009-09-23

***Hamar urte, hamar malko,  
hamar irribarre, hamar istorio.***

***Berriz elkar ikusteko  
hamar pauso gertuago.***

Besarkada bat, gure pirata



## Hizkuntza gutxituei buruz hausnartzeko Erasmus+ jardunaldietan parte hartuko dute Elgoibarko zortzi ikaslek

Europako Batasunaren testuinguruan, hizkuntza gutxituei buruzko Erasmus + egonaldiak antolatu dituzte hainbat euskal erakundek, eta zortzi nerabe irlandarrek eta hogeita lau nerabe euskaldunek hartuko dute parte, tartean zortzi elgoibartarrek. Ane Beitia Elgoibarko alkateak, Maialen Gurrutxaga Haur eta Gazteen Sustapen zinegotziak eta Udaleko Euskara eta Gazteria sailetako arduradunek azaldu zuten egitasmoa eguaztenean, eta bertan parte hartuko duten 8 elgoibartarrak aurkeztu zituzten: Unax Aseginolaza, Garazi Arriola, Ihintza Gurrutxaga, Maddalen Oñederra, Maddi Arriola, Eider Ansola, Laia Aizpurua eta Leire Sasiain.

### Helburua

Europako hizkuntza aniztasunaz ohararazteaz gain, Europako leku ezberdinetako nerabeek egoera linguistikoa antzekoak bizi dituztela ikustaraztea da proiektu honen helburua, eta elkarrekin Europako herritartasuna eraikitzea.



Izan ere, European milaka herritar dira egoera diglosikoetan bizi direnak eta Erasmus + proiektuaren bidez, beste hizkuntza gutxitu bateko gazteen eguneroko errealitatea ezagutzeko aukera izango dute. Proiektuan parte hartuko duten nerabeek bi herrialdeetan (Gipuzkoa eta Irlanda) astebeteko egonaldi bikoitza egingo dute. Egonaldi horietan toki bakoitzeko hizkuntza gutxituaren inguruko errealitatea ezagutuko dute eta 'Gazteak eta

hizkuntza gutxiak' gaiaren inguruko tailerrak jasoko dituzte.

Erasmus + proiektuaren jatorria Zizurkil eta Elgoibarko gaztelekuetan dago, han ikusi baitute Europako gazte trukaketa proiektu bat lantzeko beharra. Izan ere, hizkuntza gutxituetako gazteak kontzientziatu nahi dituzte eta hizkuntza horien erabileraren garrantziaz ohartarazi, betiere, aisialdi testuinguru batean kokatuta.

### Egutegirako argazki lehiaketa urriaren 9an itxiko dute

Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak 2020ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu du, eta urriaren 9an amaituko da parte hartzeko epea. Epaimahaiak 12 argazki aukeratu ditu egutegi handirako eta argazki bat egutegi txikian jartzeko. Txankakua merkataria elkarteko dendetan gastatzeko 80 euroko bonua jasoko dute saridunek, saritutako argazki bakoitzeko. Partaide bakoitzak hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu, gehienez. Argazkiak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira, edo emailez, [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus) helbidera bidalita.

### Kiribilen saioa izango da gaur arratsaldean Maalan

Bukatu zaizkie udako oporrak Kiribil eta bere lagunei ere, eta gaur hasiko dute ikasturte berria. Kiribil barraskiloa lagun berriekin itzuliko da, gainera, eta jolas berriak ekarriko ditu. Gaur landuko duten gaia udazkena izango da. Musika, dantza, eskulanak eta beste hainbat jolas egingo dituzte, euskaraz. Kiribilka egitasmoa Elgoibarko Izarrak antolatzen du, Elgoibarko Udalarekin lankidetzan, eta euskararen transmisioa sustatzea du helburu. Horretarako, gurasoen inplikazioa eskatuko dute arduradunek. Maalako parkean batuko dira guztiak, 17:00etatik aurrera.

### Aire libreko pintura lehiaketa egingo dute bihar, Mendaron

Mendaroko Udalak aire libreko margo lehiaketa antolatu du biharko. Teknika eta formatoa libreak izango dira, baina gaia Mendaroko herria izango da. 9:00etatik 11:00etara zigitatuko dituzte euskarriak frontoian, eta lanak 13:00etatik 14:00etara entregatu beharko dira. Irabazleak 700 euroko saria jasoko du, eta bigarren eta hirugarren sailkatuek 400 euroko sari bana jasoko dute. Herritarrentzako saria 300 eurokoa izango da. 14 urtetik beherako bi lan onenek margotzeko materiala jasoko dute. Saritutako lanak Udalaren jabetzan geratuko dira.



## Jaime Santos xakelariak irabazi du Nazioarteko Danobat Irekia, bigarren urtez jarraian

**N**azioarteko Danobat Irekiaren bigarren ekitaldian 61 xakelari aritu ziren lehiari joan zen asteburuan, IMHko Asmaola eraikinean. Aurten ere goi mailako xakelariak hartu dute parte Zubi Ondo Elgoibarko Xake Taldeak antolatutako txapelketan. Mailaren berri ematen du partida azkarren Espainiako xake txapelketa irabazi berri duen Enrique Tejedor xakelari kantabriarra ez zela pasatu bosgarren postutik. Iaz, estreinako edizioan gertatu zen moduan, Jaime Santos Leongo xakelariak nagusitasunez irabazi du aurtengoa. Jokatu zituzten bederatziti txandetan 8,5 puntu lortu zituen xakeko Maisu Handia den Santosek. Irabazleak orogarrria eta 500 euro jaso zituen saritzat. Parte hartzaileen artean elo puntuazio handiena -2601 elo puntu- zituen Karen Grigoryan armeniarra sailkatu zen bigarren postuan. Salvador Del Rio, egungo Espainiako txapeladuna, sailkatu zen hirugarren postuan, Dario Pena Duarte kolonbiarrak egin zuen laugarren eta, Enrique Tejedorrentzako izan zen bosgarren postua. Sari banaketa ekitaldian, txapelketa antolatzeako "ezinbestekoak" izan diren laguntzaileei eskerrak eman zizkieten Zubi Ondo taldeko kideek, eta hirugarren edizioa antolatzeako lankidetzarekin jarraitzea eskatu zieten.

## Zeelanda Berriko Munduko triatloi txapelketarako sailkatzea lortu du Iñaki Kondek Brasilen

Iñaki Konde Rio de Janeiro (Brasil) jokatu duten 70.3 half ironman (ironman erdia) triatloi proban lehiatu zen, irailaren 22an. 1.900 metro igerian, 90 kilometro bizikletan eta 21 kilometro korrika egin ostean, Kondek bere adin tar-teko (65-69) azkarrena izatea lortu zuen, sei ordu eta 34 minutuko denborarekin. Garaipen horri esker, distantzia ertaineko Munduko triatloi txapelketarako sailkatzea lortu du. Taupon jokatu da, Zeelanda Berrian, 2020an.



## Iban Muruak irabazi du Uharte-Berian kilometro bertikala




Sasoi betean dago Iban Murua. Astebetean bi igotera bertikal irabazi ditu. Intza-Titurre irabazi zuen irailaren 14an; eta, XI. Uharte Arakil-Berian lasterketan gailendu zen irailaren 21ean, bigarren urtez jarraian. Uharte Arakilgo frontoitik (471 m) irten ziren parte hartu zuten 200 mendi lasterkariak, eta Beriaingo San Donato ermitaraino (1494 m) igotzeko ziren. Bost kilometroko ibilbidean 1.023 metroko desnibela gainditu zuten. Iaz jokatuako lasterketan moduan, Iban Murua elgoibartarra izan zen azkarrena, 42 minutu eta 7 segundoko denbora eginda (iaz 40:37an igotzen). Ainhoa Lendinezek seigarren egin zuen emakumezkoetan.



## Lariz eta Lendinez azkarrenak 35. Nahaste Borrasten

**N**ahaste Borraste probaren 35. ekitaldian 21 lagunek hartu zuten parte, eta Iñigo Lariz eta Ainhoa Lendinez izan ziren azkarrenak, beste behin ere. Larizek bederatzi alditan irabazi du aurtengoarekin Kimetz elkarteak antolatzen duen lasterketa herrikoa. Lendinezentzat hamalagarren garaipena izan da. Bero sargoriarekin, ia 30 graduko tenperaturarekin, jokatu zuten aurtengo proba. Iñigo Lariz ez zen parte hartzekoa ekainean egin behar zuten lasterketan, baina barikuan irteeran agertu zen proba honetako dominatzaile nagusia, eta bizikletako proba lasai antzean hasi bazuen ere, bera agertu zen plaza aurreneko postuan, 25 kiloko zakua hartzera. Iñaki Goenaga ailegatu zen Larizen atzetik bizikletako zatian. Zakua bizkar gainean hartuta eta antxitxikako azken proban zeraman aldea gizendu zuen Larizek, eta 48 segundoko tarte atera zion helmugan bigarren egin zuen Jon Larrañaga mendarorrari. Larizek 18 minutu eta 51 minutuan osatu zuen proba eta Larrañagak 18 minutu eta 51 segunduan. Iñaki Goenagak lortu zuen hirugarren postua, 19:01ko denborarekin. Iñigo Iturbek (19:51) egin zuen laugarren, Iñaki Gabilondok (20:05) bosgarren eta Nahaste Borraste sei alditan irabazitakoa den Martin Dominguez (20:12) sailkatu zen seigarren postuan. Emakumezko bakarrak hartu zuten parte, Ainhoa Lendinezek. 21 minutu eta 11 segunduan osatu zuten ibilbidea. (sailkapen osoa [barren.eus](http://barren.eus))



## Iban Gonzalezek lider jarraitzen du Araba Challenge proban

Araba Challenge txirindularitza probako laugarren etapa jokatu zuten, irailaren 21ean, Murgian, eta txirindulari elgoibartarrek emaitza onak lortu zituzten. Murgian hasi eta bukatzen zen 15,2 kilometroko erlojuaren kontrako saioan lehiatu ziren, eta Carlos Palacios (Bobruc Oil) izan zen guztietan azkarrena, 20 minutu eta 37 segundoko denbora eginda. Bodegas Mazuela taldean diharduen Ramon Javier Garcia elgoibartarra sailkatu zen bigarren postuan, irabazlearengandik 26 segundora. Gobike taldeko Iban Gonzalez sailkapen nagusiko seigarren postuan sailkatu zen, 21:47ko denborarekin. Gonzalezek Master 30 mailakoen artean denborarik onena egin zuen. Araba Challengeko lau etapa jokatu eta gero, bere adin tartekoen artean lider dago Iban Gonzalez. Ramon Garcia, berriz, Master 40 mailako sailkapen nagusiko seigarren postuan dago. Araba Challengeko azken etapa jokatuko dute datorren asteburuan, Artziniegan.

**LANA.....**

**Eskaerak**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago.

☎ 631 795 790

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat. ☎ 612 556 910

Eskola partikularrak ematen dira: Kontabilitatea, finantza ekonomia eta LH, DBH eta Batxilergoko matematika.

☎ 666 042 710

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago, orduka zein asteburuetan. Esperientzia handia. ☎ 632 893 515

Adinekoak edo umeak zainduz edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. Titulua daukat.

☎ 602 047 812

Adinekoak zainduko nituzke, goizez, 15:00ak arte. Gauetz eta asteburuetan ere bai. ☎ 631 081 501

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Esperientzia eta gomendioak ditut.

☎ 631 081 501

Adinekoak zainduko nituzke. Gauetz eta asteburuetan. ☎ 648 039 187

Orduka edo etxeko langile moduan lan egiteko prest nago.

☎ 632 630 483

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Titulua daukat. Etxeko lanak egiteko ere prest nago. Euskalduna naiz.

☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 688 735 551

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 612 434 004

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke.

☎ 603 346 659

Adinekoak zainduko nituzke. Gauetz eta asteburuetan lan egiteko prest. Esperientzia eta gomendioak ditut.

☎ 688 842 791

Etxeak garbitzeko prest nago.

☎ 632 642 320

Erizain laguntzaile lanetarako prest nago. Titulua daukat. Adinekoak ere zainduko nituzke. Esperientzia.

☎ 608 406 751

Ingeles eskolak ematen ditut, etxeko etxe. Ingeles titulua daukat.

☎ 680 319 002

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan edo orduka. Erizain lanetan esperientzia daukat.

☎ 633 496 455

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko prest nago. Zaintza titulua eta elikagaiak manipulatzen titulua ditut.

☎ 602 355 271

Adinekoak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest nago.

☎ 611 306 391

Adinekoak zainduko nituzke. Gauetz ere bai, ospitalean zein etxean. Titulua daukat. ☎ 602 490 595

Adinekoak zainduko nituzke, goizez. Asteburuetan eta gauetan lan egiteko prest nago.

☎ 632 229 972

Adinekoak edo gaixoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz eta esperientzia handia daukat.

☎ 617 571 210

**Eskaintzak**

Jatetxe baterako zerbitzaria behar da.

☎ 659 539 861

Langile euskalduna behar da Elgoibarko denda batean lan egiteko. Bidali curriculuma [inmabima@gmail.com](mailto:inmabima@gmail.com) helbidera.

**ETXEBIZITZAK.....**

Pisu atsegina eta argitsua salgai Elgoibarren, Ubitarte 11n. 165.000. 65m<sup>2</sup>, bi gela, bainugela, eta trastelekua. Armairu enpotratu eta alizariekin, sukaldea guztiz hornitua eta dena hegoekialderuntz begira. Hari musikala, igogailua. ☎ 656 720 238

Etxea hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren edo inguruko herririen batean.

☎ 683 415 222 (Maria)

Elgoibarko bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. Igogailua beharrezkoa, eta ahal dela, erdigunean.

☎ 617 562 086

Bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. Lanean ari gara.

☎ 622 162 798

**BESTELAKOAK.....**

Irailaren 11n zilarrezko lepoko katea galdu nuen Olaizaga kiroledegiko inguruan. Bale buztan zintzilikarioa dauka eta atzean lizar jartzen du.

☎ 615 624 599

Familia batek Elgoibartik gertu dagoen lur sail txiki bat erosi edo alokatu nahiko luke. ☎ 669 339 529



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Euzko Erria Administrazioaren Erakunde Nazionala



**ROSA Ma PINTADO**

*Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)

**Gure komunitatean arropa erabat bustita zintzilikatzen duen bizilagun bat dago, eta gainerakoen arropak bustitzen dira. Jakin nahi nuke nola konpondu dezakegun hori.**

Zoritxarrez, zuk aurkezten diguzun arazo hau uste baino ohikoagoa da, eta haserre ugari sortzen ditu bizilagunen artean.

Egia esanda ez dago inon jasota gai honen aurrean nola jokatu behar den, ezinezkoa delako ordenantzetan kasuistika guztiak batzea. Ez Jabetza Horizontalean, eta ezta beste inon ere.

Legeak printzipio batzuk jasotzen ditu, zehazteko bizilagun batek besteekiko izan behar duen jokabidea nolakoa izan behar den. Printzipio horiek zentzu komunean oinarritzen dira, eta bizilagunen borondatearen neurrikoak dira. Printzipio horietako batek dio ez zaiola besteari minik egin behar. Min mota guztiak eta eragiten diren kalte guztiak jasotzen dira printzipio horretan. Baita zuk diozun kalte txiki horren neurrikoak ere. Baina kalte txiki horien kontrako neurriak hartzea zaila da, erreklamazio formal bat egitea neurritz kanpo legokeelako. Probak frogatzea ere ez da erraza horrelakoetan.

Irtenbidea, beraz, jendearen zentzu onaren arabera izango da. Eta ez soilik kaltetuena, baizik eta ingurukoena ere, horien papera erabakiorra izaten delako askotan horrelakoetan. Gerta daiteke baita ere muga guztiak gainditu eta haserre pertsonalak sortzea.


**ONDORIOA: Ez da beharrezkoa legera jotzea arazo honi irtenbidea emateko. Pertsonen borondate onez konpondu beharko litzateke, bizilagun guztientzako hobereana den irtenbidea aurkituz eta arazoa modu baketsuan konponuz.**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.




Zorionak, **Luken**, hilaren 24an 5 urte bete zenituelako. Muxu guztiak, familiako guztion partez.



Zorionak, **Nora**, 8 urte egin dituzulako. Muxu pila bat etxeko guztion partez.



Urtebete dagoe-neko, **Inar!** Zorionak! Urte zoragarria izanda! Maite-maite zaitugu etxekook.



Zorionak, **Manex!** Goizean goizetik ondo ospatuta! 12 belarri tirakada, bereziki, Xabat eta Unai-ren partez.



Zorionak, **Adan eta Axel**, asteartean 6 urte bete zenituztelako. Familiako guztion partez. Beste urte asko bete ditza-zuela.



Zorionak, **Naroa eta Izar**, aste honetan 9 eta 8 urte egin dituzuelako. Asko maite zaituztegu.



Zorionak, **Garazi!** Bihar 4 urtetxo! Ondo pasa zure egunean. Familiakoen eta ahizpaixo Mararen partez. Muxu potolo bat.




Zorionak, **Elene**, gaur 9 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Itxaso**, irailaren 30ean 6 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoen, eta bereziki, Kaiaren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€.  
 Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
 Erretratu bakarreko agurra: 3'50€.  
 Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€



**GARBIKETAK**  
 Portalak  
 Bulegoak  
 Lokalak  
 Enpresak

**649 381 400**  
 (AITZIBER)

**IKASGO ACADEMY** **AURREMATRIKULA EPEA ZABALIK**  
**2019-2020**

Basarte 13, behea - Elgoibar  
[akadem@elgoibar@gmail.com](mailto:akadem@elgoibar@gmail.com)

- INGELES ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAK
- TALDE TXIKIAK

**667 261 248**  
 (Leire)

RPS 18312



**40.**  
urteurrena  
**UZURI**  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
 Tel.: 943 740 359

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

► **Urriko eskaintza:**

**2. betaurreko monofokala**

-50%



► **Urriko zozketa:**

**5 bono 30€ koak optikan erabiltzeko**



Aurreko hilabeteko sarituak:



**MIREN ARTETXE**



**JULI SASIAIN**



**JAVI ASENJO**

## 27 BARIKUA

**17:00** Kiribil. Elgoibarko Izarrak anto-  
luta, Maalako parkean.

## 28 ZAPATUA

**Hil bukaerako feria, Kaleba-  
rren plazan**

**9:00** Baserriko produktuen salmenta.

**11:00** C.D. Elgoibarrek pintxoak sal-  
duko ditu txosnan.

**12:00** Ume eta gazteentzako brotxeta  
tailerra.

**Eguerditik aurrera**, ganadu era-  
kusketa. Aita Agirre plazan.

**9:00etatik aurrera**, aire libreko  
margo lehiaketa, Mendaron. Lanak  
13:00etatik 14:00etara entregatu be-

harko dira, eta 14:30ean egingo dute  
sari banaketa.

**10:00** Debabarreneko topaketa: Ro-  
botika eta Bizilabe. Robotika txapel-  
keta, Ikastolako frontoian eta Bizilabe  
tailerraren esperimientuen erakusketa,  
Maalako parkean.

**21:00** Zinea, Mendaroko frontoian.  
'Horman erlojuak duen etxea'. Euskaraz.

## 29 DOMEKA

**17:00** Gipuzkoako Bertsolari Txapel-  
ketako final zortzirenak. Herriko Antzo-  
kian.

## 30 ASTELEHENA

**17:30** Clown ikuskizuna eta aurpegia  
margotzea, Mendaroko ludotekan. Ja-  
raian, Ludoteka berria zabalduko dute.

## 1 MARTITZENA

**12:00** Jubilatu eta pentsiodunen mani-  
festazioa. Eibarren, Untzaga plazan  
hasita.

## 2 EGUAZTENA

**16:30** Adinekoen erorikoak saihe-  
teko tailerra. 65 urtetik gorakoentzat.  
Jubilatuaren biltokian.

**18:30** Hitzaldia: "Zuzenbidea eta fa-  
milia harremanak: Herentziak, oinorde-  
tzak eta banaketak. Nola arautzen dira  
Zuzenbidearen bitartez?". Haizea  
emakume taldeak antolatuta, Elena  
Laka abokatuak emango du.

## SAN MIGEL JAIK AIASTIAN

### IRAILAK 27, BARIKUA

**19:30** Kanpai jotzea.

**Jarraian**, kalejira auzoan, frontoi-  
tik hasita.

**21:00** Haritz EDTren dantzaldia,  
Borja Uzuriagaren oroimenez.

**22:00** Gazte afaria.

**Ondoren**, erromeria Fan&Go tal-  
dearekin.

**Goizaldean**, oilasko jana fron-  
toian.

### IRAILAK 28, ZAPATUA

**13:00** Umeentzako jolasak.

**14:30** Bazkaria.

**Ondoren**, umeentzako parkea.

**18:00ak aldera** Bolo txapelketa.

**21:00** Bertso afaria, Iker Zubeldia  
eta Unai Agirre bertsolariekin, Bal-  
tzola eta Andonegi trikitilariet giro-  
tuta.

**Ondoren**, diskofesta.

### IRAILAK 29, DOMEKA

**San Migel Eguna**

**11:00** Meza.

**Jarraian**, Baltzola eta Andonegi  
trikitilariak.

**12:00** Artzain txakur txapelketa.  
Euskal Herriko arraza libreko finala.

**14:30** Bazkaria.

**17:00** Idi demak.

**Ondoren**, Baltzola eta Andonegi  
trikitilariak.

**ANTZINAKO OGIBIDEAK  
BERRESKURATZEN**

**URRIA  
06  
IGANDEA**

**ESKUZKO GRABATZAILEEN  
ERAKUSTALDIA**  
Eskuzko grabaketaren teknika  
ezagutzeko **zuzeneko erakustaldia**.

**TAILERRA HAURRENTZAT**  
Atxutxiamaikarekin pultsera eta  
giltzariak egiteko **doako tailerra**.

🕒 11:30etan  
📍 FORUEN PLAZAN

MUSEO  
ELGOIBAR  
KUTXA  
GIPUZKOAN  
EUSKAL HERRIEN  
GIZARTETAN



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
27 BARIKUA	28 ZAPATUA	29 DOMEKA	30 ASTELEHENA	1 MARTITZENA	2 EGUAZTENA	3 EGUENA	4 BARIKUA
Egunez <b>Garitaonandia</b>	Egunez <b>Etxeberria</b>	Egunez <b>Etxeberria</b>	Egunez <b>*Fernandez</b>	Egunez <b>Yudego</b>	Egunez <b>*Oruesagasti</b>	Egunez <b>Barrenetxea</b>	Egunez <b>*Ibañez</b>
Iluntzean <b>Garitaonandia</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Yudego</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Barrenetxea</b>	Iluntzean <b>Etxeberria</b>

\* Fernandez:  
Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)  
943 820 498

Zinea (Herriko Antzokian) Iñaki Agirre Zinemaldia

'Viaje a Nara'  
27 barikua: 21:30

'Sombra'  
28 zapatua: 19:00 / 22:15  
30 astelehena: 21:30

IKASTARO SUBENTZIONATUA




## ENGLISH FOR PRESENTATIONS

- DATAK: 2019/10/16- 2019/12/18
- ORDUTEGIA: 17:30-20:00
- EGUNAK: Asteazkenak
- LEKUA: IMH, Elgoibar
- IZENEMATE EPEA: urriak 8ra arte



ils@ils.es  
943 744040








## 1958

Aste honetako erretratu zaharra Carmen Soraluze lagatakoa da. 1958. urtekoa da, eta Margarita Soraluzearen ezkontza egunean aterata dago. Maalako elizan ezkondu zen, eta elizaren kanpoaldean aterata dago argazkia. Ikusten den bezala, garai hartan ohikoa zen beltzez ezkontzea. Ezkerretik eskumara: **Margarita Soraluze (+)**, **Carmen Soraluze** eta **Mari Izagirre**.

**LAGUNAK**  
colchonera textil hogar



- Zetazko Jacquard biskosa
- 300 gr Zeta
- 300 gr Lihoa
- Latex Naturala Confort
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Cool Spring 900 suspentsioa
- 5 atsedeen gune
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Latex Naturala Confort
- 300 gr Mohair Artile
- 300gr zeta
- Zetazko Jacquard biskosa

Proba ezazu koltxoi natural batean lo egitea zer den eta bizi ezazu esperientzia lasaigarri bat. Zatoz probatzera gure dendara!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



## Koldo Lizarralde Elberdin

2019ko irailaren 23an hil zen, 69 urte zituela.

**Izan zarenagatik  
eta erakutsi duzunagatik,  
ez zaitugu inoiz ahaztuko.**



## Koldo Lizarralde Elberdin

2019ko irailaren 23an hil zen, 69 urte zituela.

**Ez agurrik, ez adiorik; gero arte bakarrik.**




## Koldo Lizarralde Elberdin

2019ko irailaren 23an hil zen, 69 urte zituela.



**Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko  
gure bihotz barrenean  
eramango zaitugu betiko.**

Etxekoak



2019

# STOCK FERIA

ELGOIBAR

**URRIAK 5, LARUNBATA**

**10:00ETATIK - 14:30ERA**

**MAHALAKO PARKEAN**

**PARTE-HARTZEKO ETA INFORMAZIO GERTAGO ESKURATZEKO DEITU 945747501 ZENBARRA**

